

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 TOKI ADMINISTRAZIOA ETA
LURRALDE OREKA

Programa: 12 TEFFF

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 10 ADMINISTRACIÓN LOCAL Y
EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 12 FOFEL

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Programa honek ekarpen garrantzitsuenak biltzen ditu, bere finantzaketarako Arabako toki erakundeek jasotzen dituztenak.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN BETETZE MAILA

1.- Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.

Helburua: Arabako toki erakundeak finantzatzen laguntzea: kuadrillak, udalak eta kontzejak.

1.-1 Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsa.

19/1997 Foru Arauak, besteak beste, Toki Erakundeak finantzatzeko Foru Funt sarean partidako funtsen banaketa arautzen du. Berau ekainaren 30ean onartu zuten Arabako Biltzar Nagusiek eta irailaren 25eko 26/1997 Foru Arauaren bitartez bere zati bat aldatu zen. Honen bitartez Arabako toki erakundeak finantzatzeko beste marko bat sortu zen. Haren aplikazioak emaitza hauek izan ditu:

- Vitoria-Gasteizko Udalak transferitutako Gizarte Ongizatearen zerbitzuak emateagatik duen partaidetza: 2.104.830,90 euro.
- Kuadrillek duten partaidetza, aipaturiko arauen 8. artikuluko B)1 eta C) idatz zatietan xedatutakoaren arabera: 1.750.198,34 euro.
- Kuadrillek duten partaidetza (izaera baldintzatua duena) 19/1997 Foru Arauak 2. paragrafoko B) idatz zatian xedatutako kontzeptuengatik, Diputatuen Kontseiluaren 785/1998 Erabakiaren bitartez onartu zen metodologia aplikatuta: 902.754,83 euro.

I. MEMORIA

Este Programa recoge las aportaciones cuantitativamente más importantes que perciben las Entidades Locales alavesas para su financiación.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

1.- Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales.

Objetivo: Cooperación en la financiación de las Entidades Locales Alavesas: Cuadrillas, Ayuntamientos y Concejos.

1.-1 Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales.

La Norma Foral 19/1997 que regula entre otros aspectos, la distribución de los Fondos con que se dota la partida del Fondo Foral de Financiación de Entidades Locales fue aprobada con fecha 30 de junio por las Juntas Generales de Álava, y parcialmente modificada por Norma Foral 26/1997 de 25 de septiembre. Con ella se crea un nuevo marco de financiación para las Entidades Locales alavesas. De su aplicación se derivan los siguientes resultados:

- Participación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz por la prestación de los servicios de Bienestar Social transferidos: 2.104.830,90 euros.
- Participación de las Cuadrillas en los términos establecidos en los apartados B)1 y C) del artículo 8 de las citadas Normas: 1.750.198,34 euros.
- Participación, de carácter condicionado, de las Cuadrillas por los conceptos establecidos en el apartado B) párrafo 2º de la Norma Foral 19/1997, en aplicación de la metodología aprobada mediante Acuerdo 785/1998 del Consejo de Diputados: 902.754,83 euros.

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 TOKI ADMINISTRAZIOA ETA
LURRALDE OREKA

Programa: 12 TEFFF

- Kontzejuen partaidetza: 3.658.354,01 euro, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuen artean aurretik aipaturiko 19/1997 eta 26/1997 Foru Arauek xedatutakoaren arabera banatuta.

- Arabako udalen partaidetza: 179.136.997,92 euro, Lurralde Historikoko 51 udalen artean aipaturiko foru arauek xedatutakoaren arabera banatuta.

1.-2 60.101,21 euro baino gutxiago jasotzen dituzten udalei ematen zaien dirulaguntza berdintzailea.

Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Batzordeak 1998ko irailaren 9ko bilkuran erabakitakoaren arabera, Toki Erakundeak Finantzatzeko 2010eko Foru Funtsean 60.101,21 euro baino gutxiagoko partaidetza duten udalei egin beharreko konpentsazioari aurre egin ahal izateko partida erreserbatu zen, horrela gutxienez kopuru hori jaso zezaten. Udalei funtsen banaketa egin eta gero, haiek guztiek gainditu zuten aipaturiko kopurua; beraz, ez da beharrezkoa izan partida honen bitartez osagarritzko finantzaketaz baliatzea.

2.- Udalen partaidetza

2-1 Udalek itundu gabeko zergetan duten partaidetza.

GASTUAK

Helburua: *Udaleri Estatuarekin itundu gabeko zergetan dituzten partaidetzak transferitzea.*

Ekonomia Itunaren Legean xedatutakoaren arabera, hitzartu gabeko zergetako partaidetzak ordaindu zizkien Aldundiak Arabako udalei. 2010 ekitaldian 137.109,00 euro jarri dira aurrekontuetan. Guztira 366.753,87 euro ordaindu da.

DIRU SARRERAK

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 10 ADMINISTRACIÓN LOCAL Y
EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 12 FOFEL

- Participación de los Concejos: 3.658.354,01 euros, que se distribuyen entre los Concejos del Territorio Histórico de Álava en base a lo establecido en las Normas Forales 19/1997 y 26/1997 anteriormente citadas.

- Participación de los Ayuntamientos alaveses: 179.136.997,92 euros, que se distribuyen entre los 51 Ayuntamientos del Territorio Histórico en función de los criterios establecidos en las citadas Normas Forales.

1.-2 Subvención compensatoria para los Ayuntamientos con percepción de Fondos inferiores a 60.101,21 euros.

En base a lo convenido en el seno del Consejo Territorial de Administración Local y Finanzas en su sesión de 9 de septiembre de 1998, se reserva la partida para poder hacer frente a la compensación a realizar a aquellos Ayuntamientos cuya participación en el Fondo Foral de Financiación de las Entidades Locales de 2010 fuese inferior a 60.101,21 euros, de forma que percibiesen al menos esa cantidad. Una vez realizada la distribución de fondos a los Ayuntamientos, todos ellos sobrepasaron la citada cantidad, por lo que no se ha hecho necesario recurrir a la financiación complementaria a través de esta partida.

2.- Participación Municipal

2-1 Participación de los Ayuntamientos en los Tributos no Concertados.

GASTOS

Objetivo: *Transferir a los Ayuntamientos sus participaciones en los Tributos no Concertados con el Estado.*

Conforme a lo establecido en la Ley de Concerto Económico, por la Diputación se abonó a los Ayuntamientos alaveses las participaciones de éstos en los Tributos no Concertados. Para el ejercicio 2010 la cantidad asignada en presupuesto alcanzó 137.109,00 euros. Se han abonado en total 366.753,87 euros.

INGRESOS

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 TOKI ADMINISTRAZIOA ETA LURRALDE OREKA

Programa: 12 TEFFF

Udalek hitzartu gabeko zergetan duten partaidetzaren partida zuzkitu da 2010. urtean Estatuaren Ogasunak Arabako udalen artean banatzeko egingo dituen sarreraren aurreikuspenaz, eta ekitaldi honetarako 137.109,00 eurokoa da. Aurreko gastuen atalean aipatu denez, benetan jasotako diru sarrerak handiagoak izan dira: 366.753,87 euro 2010 ekitaldirako. Kopuru hori oso-osorik eskualdatu zaie udalei.

3.- Kontzejuei aseguruak finantzatzea.

Arabako Foru Aldundiak Arabako Kontzejuen alde hainbat arrisku aurreikusten dituzten aseguruak kontratatzeke konpromisotik eratorritako gastuei erantzuten die Azpiprograma honek.

Kontzeju askok adierazitakoari erantzunez, Aldundiak ondokoak bere gain hartzen dituzten aseguruak taldeka kontratatzea sustatu du: erantzukizun zibileko arriskuak, korporatiboen istripuak lanean ari direla, Kontzejuaren jabetzako eraikinak eta auzolanetan gertatutako istripuak. Nahi duena atxiki daiteke, eta kontratazioa eta geroko kudeaketa Aldundiak egiten du. Hortaz, kontzejuek ez dute inolako izapiderik egin behar. Ezagutza eta parte hartze maila handiena lortzea sustatzeko, Aldundiak primen kostuaren % 50eko dirulaguntza ematen die atxikitako kontzejuei. 2010eko ekitaldian 323 kontzejuk hautatu dute formula hau, eta aseguramenduaren guztirako kostua 225.134,89 euro izan da.

DIRU SARRERAK

“Kontzejuei Arriskuak aseguratzeko” izeneko partidak 2010. urtean izan duen zuzkiduran, barne hartu da aseguruen kontratazio kolektiboko sisteman beren borondatez sartu diren kontzejuek egin beharreko sarreraren aurreikuspena. Primen % 50 da.

4.- Finantzaketako foru lerroa

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 10 ADMINISTRACIÓN LOCAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 12 FOFEL

La partida “Participación de los Ayuntamientos en los Tributos no Concertados” se dota en 2010 con la previsión de ingresos a realizar por la Hacienda del Estado para su distribución entre los Ayuntamientos alaveses, y que para el citado ejercicio asciende a 137.109,00 euros. Como ya se ha citado en el anterior apartado de Gastos, el ingreso efectivo percibido ha sido superior, ascendiendo a 366.753,87 euros correspondiente al ejercicio 2010 y que en su totalidad ha sido ingresado a los Ayuntamientos.

3.- Financiación Aseguramiento Concejos.

Este subprograma soporta los gastos derivados del compromiso asumido por la Diputación Foral de Álava para con los Concejos alaveses en materia de contratación de seguros para la cobertura de diversos riesgos.

Atendiendo al sentir manifestado por muchos Concejos, la Diputación promueve la contratación de forma colectiva, de pólizas de seguros para las coberturas de riesgos de responsabilidad civil, accidentes de corporativos en el ejercicio de sus funciones, cobertura de edificios propiedad del Concejo y accidentes en veredas. La adhesión es voluntaria, y tanto la contratación como la gestión posterior se realiza por la Diputación, evitando a los Concejos cualquier tramitación. Como incentivo para lograr la mayor difusión e implicación, la Diputación subvenciona el 50% del coste de las primas a cada uno de los Concejos adheridos. En el ejercicio 2010 fueron 323 los Concejos que decidieron acogerse a esta fórmula y el coste total del aseguramiento ascendió a 225.134,89 euros.

INGRESOS

La partida “Aseguramiento Riesgos a Concejos” se dota en 2010 con la previsión de ingresos a realizar por los Concejos que voluntariamente se han adherido al sistema de contratación colectiva de seguros. Representa el 50 % del coste de las primas.

4.- Línea Foral de Financiación

2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 TOKI ADMINISTRAZIOA ETA
LURRALDE OREKA

Programa: 12 TEFFF

Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza apirilaren 24ko 14/1997 Foru Arauak arautzen du. Honek Obra eta Zerbitzuen Foru Planak eta toki erakundeen obra eta zerbitzuak emateko Arabako Foru Aldundiaren lankidetzaren beste tresna batzuk arautzen ditu. Arabako Foru Aldundiak toki erakundeekin duen lankidetzaren tresna da eta hauen eskura jartzen du behar den kapitala, aipaturiko arauko 7. artikuluan xedatzen diren eta gauzatzen diren inbertsioak, obrak eta zerbitzuak egin ditzaten.

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren bitartez dirulaguntza jaso dezaketen edo finantza daitezkeen obrak finantzatzeko toki erakundeek finantza erakundeekin kreditu lerroak irekitzen dituzte. Foru Planaren bitartez kreditu lerro horietatik ateratzen diren finantza gastuak bere gain hartzen ditu Aldundiak. Partida honek 2010eko aurrekontuan 243.482,35 euro eduki ditu.

Finantzatzeko Foru Funtza 12 toki erakundek kontratazeko baimena eman da ekitaldian zehar. Kontratazio hauen zenbatekoa guztira 802.874,27 euro izan da.

Ikuspuntu honetatik aztertuta baieztatu daiteke helburuak, bai kopuru aldetik eta bai kalitate aldetik ere, erabat bete direla.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2010

Departamento: 10 ADMINISTRACIÓN LOCAL Y
EQUILIBRIO TERRITORIAL

Programa: 12 FOFEL

La Línea Foral de Financiación de las Entidades Locales viene regulada por la Norma Foral 14/1997 de 24 de abril, reguladora del Plan Foral de Obras y Servicios y de otros instrumentos de cooperación de la Diputación Foral de Álava a las obras y servicios de las Entidades Locales, y se define como un instrumento de cooperación financiera de la Diputación Foral de Álava con las Entidades Locales de Álava, poniendo a su disposición el capital necesario para la realización de las inversiones, obras y servicios recogidos en el artículo 7 de la citada Norma, que se ejecuten.

Consiste básicamente en la asunción por parte de la Diputación de los costes financieros derivados de las Líneas de crédito abiertas por las Entidades Locales con entidades financieras para la financiación de obras normalmente subvencionadas o susceptibles de ser financiadas a través del Plan Foral de Obras y Servicios. La consignación presupuestaria de esta partida para 2010 asciende a 243.482,35 euros.

Durante el ejercicio se autorizó la contratación por parte de 12 Entidades Locales de Línea Foral de Financiación, por un importe total de 802.874,27 euros.

Puede afirmarse que, analizado desde esta perspectiva, el cumplimiento de los objetivos, tanto cuantitativos como cualitativos ha sido total.